

Irún, 2022ko irailaren 2a

### **LEHEN HEZKUNTZARAKO BEKAK**

Guraso estimatuak,

Hezkuntza Sailak bekak eskatzeko epea ireki duela jakinarazi digute. Aurrekoetan bezala bi taula daude. Bata jangelarako dirulaguntza eskatzeko, eta bestea material didaktikorako dirulaguntza jasotzeko. Gogoratu dirusarrerak kontuan izateko ez direla dirusari gordinak kontuan hartu behar, baizik eta *etekin garbiak* (**zerga-oinarri orokorra gehi aurrezpenaren zerga-oinarria ken kuota likidoa**).

### **JANGELARAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO EKONOMIA ALORREKO BALDINTZAK**

FAMILIAKIDEEN KOPURUA GUZTIRA	DIRUSARRERAK	FAMILIAKIDEEN KOPURUA GUZTIRA	DIRUSARRERAK
1	11.937	5	34.370
2	19.444	6	38.313
3	25.534	7	42.041
4	30.287	8	45.744

### **MATERIAL DIDAKTIKORAKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO EKONOMIA ALORREKO BALDINTZAK**

FAMILIAKIDEEN KOPURUA GUZTIRA	DIRUSARRERAK	FAMILIAKIDEEN KOPURUA GUZTIRA	DIRUSARRERAK
1	14.826	5	45.598
2	25.308	6	49.224
3	34.352	7	52.810
4	40.796	8	56.380

LEHEN ALDIZ eskatu edo ZUZENKETAK egin behar duzuenok pasa zaitezketen Arbeseko bulegotik irailaren 19tik 30 arte ondorengo ordutegiarekin:

-Astelehen, asteazken eta ostiraletan 9etatik 11etara

- Astearte eta ostegunetan 14:30etik 16:30era

**OHARRA:** Ezinbestekoa izango da lehendik hitzordua [www.tokialai.eus-en](http://www.tokialai.eus-en) eskatzea.

Seme-alaba bat baino gehiago duzuen kasuetan haur bakoitzeko hitzordu bana eskatu beharko duzue.

- Ekarri beharreko dokumentazioa **eskaera berrientzat eta aldaketa esanguratsuak suertatu direnen kasuan**: NAN fotokopia, kontu korrontearen zenbakia, errenta aitortpena (EAEtik kanpo lan egiten dutenentzat soilik) eta hala behar dutenen kasuan, elbarritasun agiria eta banatze sententzia.

- Informazio gehiago: <http://www.hezkuntza.net> web orrian.

Zuzendariak